

Euskaldun herbesteratuek Parisen bizi duten giroa jasotzen du eleberri honek. Eleberri aldetik egiturazko hutsa nabari badu ere, irakurgai erraza da, bereziki lapurtar-baxenabarrera hizkerara zerbait ohitua dagoanarentzat.

Egileari, bere ideak eta bere barneko sentierak gehiegi azaltzen zaizkio eleberri baterako. Baina, kontu izan poeta baten lana dela eta igarri gabe ere poesia azaleratzen zaio. Gainera, *Hinki-hanka* poesi liburuan bezala, bere herrian iraultzaile agertu nahi du mundu zabalari begira eta pertsonaia baten ahotik esango digu: «—Etxepareko Joanesek, duela bost mende, Buzunaritzetik, Eihalarren gaindi, euskara atera zikan Garaziko plazara, eta Garazitik mundura.» Beste batean ordea: «—Baina, geure herrian eta atzerrian, zendako gaituk debekatuak? Zendako gaituk kontrabandan bezala bizitzera behartuak? Espaziorik gabe. Askatasunik gabe. Pizti lanjeros batzu bezala gaituk ikusiak eta bazter guzietatik huxatuak.» Aldiz, ihardespena emango dionaren ahotik: «Nik ez dioiat konpreni zer pasatzen den jendeen bihotzetik elkarrentzat hoin gaixto bilakatzeko, herraz eta mendekioz elkar suntsitzeko...»

Dena dela, eleberri bezala guti balio badu ere, bertan bilduak noizbait bizitua dirudi eta kontraera edo narrazio gisa interesgarria da. Gainera, gizarte giroa atsegin du eta bertan murgildurik mintzo da, adibide hontatik ikus daitekenez: «Geure gorputzaren sumindura jendartean gabiltzalarik: alde guzietatik inguratua, tinkatua, poxolatua. Hiria, sasi handi bat gertatzen zaigu, dena lahar eta dena zizta zorrotz. Denak hor agitzen gara sasira baztertuak, laharretara sakatuak.» Eta, holako lekuetan jenderik humilenekin gogoratuko da, irakurleari ere oroitaraziz hiri handietan badela meatxupean bizi denik: «Batez ere jende xehea, jende arrunta, jende langilea, enpresa mota guzietako jende menekoa, jende zapaldua. Ez dakit, ez dakigu besoak eta zangoak mozturik gabiltzala jostatzeko uzten dizkiguten oren laburretan, hatsa hartzeko doia, ilusio baten doia...»

Ots